

*Oñintza Lasa*

EAKO KOMUNIKAZIO IDAZKARIA

## Euskal puzzlea

**M**

aiatzaren 27ko udal eta foru hauteskundeek euskal politika euskal puzzle bihurtu dela —edo dugula, hobe esanda— erakutsi digute. Bere aniztasunean gero eta anitzagoa omen da euskal gizartea eta, hauteskundeetako emaitzak ikusita, ez da erraza izango puzzle horren pieza guztiak ondo ahokatzea, are gutxiago udalerrri bakoitzeko errealitate politikoa berezi eta bakarra izaten denean eta, beraz, erre-zeta magiko eta bakarra ez dagoenean. Gehiago argirik ez dagoenean, oraingoan bezala, alderdi ezberdinen arteko adostasunak eta akordioak ezinbestekoak dira udal eta foru gobernua osatzeko, baina oker geundeke hartu beharreko bidea norabide bakarrekoa dela pentsatuko bagenu. Herri bakoitzak berezko izaera eta ezaugarriak ditu eta, alderdien zuzendaritzei irizpide orokorrak finkatzea dagokien arren, ezin dezakegu ahaztu udalerrri batean posible eta ona den akordioa ondokoan ezinezkoa eta txarra izan daitekeenik. Batzuek nahiz besteek esanak logika honen barruan kokatu behar ditugu, hortaz, hainbat udaletxetan egindako gobernu-akordioak.

Gizarte anitza da gurea, bai, baina aniztasunaz mintzatzen garenean abertzaleok galtzaile ateratzen garela ikusiko dugu. Gure helburu eta aldarrikapen estrategikoak bigarren maila batean utzi beharko bagenu bezala. Arriskua ikusten dut hor, hori egia ez delako, abertzaleen aldarrikapen nagusiak —euskaldunoi dagokigun erabakitzeak eskubideak, alegia— euskal gizartearen gehiengoaren babesa eskuratzen duelako behin eta berriro



ALBERTO ELOSEGI

hauteskunde guztietan, eta maiatzaren 27koak ez dira salbuespen bat izan.

Aldarrikapen horrek abiapuntua izan behar du Euskal Herriko etorkizuna eraikitzeke eta, horretarako, nazionalista espainolen oposizioa ez ezik, ETArekin jarduera ere gaitzitu beharko dugu. ETA abertzaleok dugun oztopo nagusia da eta su-etenaren hausturak burujabetzarantzko bidea zaildu baino ez du egiten. Izan ere, batzuek iraganean jada porrot egin zuten formulak berreskuratzeko tentazioa edukiko dute, baina azken hilabeteotan emandako aurrerapausoak ez dira alferrikakoak izan eta ezinbestekoa da hasitako biderei berriz ere heltzea, indarkeriari behin betiko uko eginez eta soilik bide demokratikoak jorratuz euskal gizartearen gehiengoaren babesa lortu eta herri gisa dagozkigun eskubideak aitortuko dituen eszenatoki politiko berria errealitate bihurtzeko.

Korapilo hori askatzea premiazkoa da eta herritarrak behar ditugu horretarako. Oso kontuan hartzeko printzipioa da hori eta hauteskundeetan izandako abstentzio indize altuak (%39,4) hausnarketa sakona egitera eramane behar gaitu. Jadanik gainbehera zetorren bake eta normalizazio prozesuak eta hauteskundeetan defizit demokratikoak —ilegalizazioak— ia ezinezko egiten zuten jendeak ilusioari eustea eta azaltzen dute zergatik gizartearen zati garrantzitsua bategi bizkarra eman dion oraingoan politikari. Euskal gizartea protagonista egin behar dugu. Euskal gizarteak hitz egin du. Entzun al diogu? Hauxe da orain argitu beharreko galdera. ■

« Euskal gizartea protagonista egin behar dugu. Euskal gizarteak hitz egin du. Entzun al diogu? »

TXANDAN

*Igor Estankona*



Su-etenaren amaierak betiko labirintoren itxura hartu du.

Arraina isatsari hozka ari da berriro. Herriko zaharrena ere ez da izan behar ohartzeko, diskurtso erosoaren epelera itzuli direla zer opatu izan ez dutenak.

Errazena ei da armetara itzultzea. Distiratsua, eraginkorra, baina engainagarria da ideia hori. Arriskatzeko unea zenean ausente egon denaren ahoan pozoia dirudi. Abertzale baten ikuspuntutik iraina da ia. Zailena da negoziazio mahaiari eustea, gaineratzen dute. Borroka armatua, ordea, latza, iluna, esker txarrekoa eta arriskutsua dela

## Arrainaren luzea

edozeinek daki. Bermeekin, negoziazio mahaiaren geratzea askoz errentagarriagoa da.

Espainiar eskuinarentzako mesedea. Ezaguna da bigarren lelo hau ere. Baina elkarrizketa —edo gerra— ez dira libratu izan PP edo PSOEekin. Larrizko moduko berria da hango eskuinarentzat hausturarena —guztiz zoratu ez badira behintzat— giza-ikuspuntutik zein estrategikoki. Ez da ahantzi behar Estatua eseri ohi dela mahaiaren azken buruan, eta eurak direla haren errekanbio nagusia. Zenbat eta lehenago ulertu bakea edukiz hornitu behar dela, hobe. Bitartean, fedea. ■